

BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua lagungarria izan daiteke jende gaztearentzako. Jendeari arropa desberdinak eskaintzen diegu eta haien gustura pertsonalizatzeko aukera.

Balio kualitatiboari begira, gure produktua lehiakideengandik bereizten gaituena arroparen pertsonalizazioa da. Bi aukera ematen ditugu: lehengoa guk diseinatutako arropa erostea, eta bigarrena bezeroak egindako diseinuak/arropa erostea.

Aldiz, balio kuantitatiboari dagokionez, gure dendako prezioak eskuragarriak dira jende gaztearentzako, kasu gehienetan gazteek ez daukate diru sarrerarik edo hauek oso baxuak izaten dira; eta horregatik gure prezioak ahalik eta eskuragarrienak dira guztiek gure dendan erosteko aukera izateko.

Beste berezitasun bat erosotasuna izango da, eta honi lotuta berritasuna eta erabilerraztasuna aurki dezakegu. Edozein lekutatik erosi ahal duzu; web orrialdetik edo apliklaziotik. Erosteko erraza eta eroso da, eta berritasunaren aldetik produktu eta aukera desberdin bat ematen dugu.

